

## Creus lurmuturra.

Penintsula Iberiarraren ekialdeko mugan, Costa Bravan, Piriniar mendikatearen adarrak Mediterraneo itsasoan barneratzen dira eta Creus lurmuturreko penintsula osatzen dute.

Zuhaixka eta sastrakak gailentzen dira paleozoikoko granito eta eskistodun lur eremu berezi honetan.

Etengabe badia txikiek eteten duten kostalde harkaiztsu honek forma konplexu eta ederrekin harritzen gaitu sarri. Olatuen ekintza jarraituaren eta levante eta tramontana haizeen ondorio.

1998-ko maiatzaz geroztik Creus lurmuturra Itsaso eta Lurreko Parke Naturala da, babesturiko 13.000 hektarea baino gehiagorekin. Babes hau jaso zuen bai itsaso eta bai lurreko pasai eta biologia aberastasuna dela-eta, baita hamar mende baino gehiagotan zehar inguru horretan gauzatu zen ondare historiko eta kulturalagatik ere.

Creus lurmuturreko itsasoan uraren garbitasun eta gardentasuna itsas eremu honek jasaten duen kutsadura maila baxuaren isla da. Baita ur hauen kalitate eta bertan bizi diren bizi forma anitzena ere.

Hondo harkaiztsuaren gainean gorgonia adarkatu eta lirainen abanikoak itsas zolako paisaian nabarmentzen dira. Bere inguruan hainbat organismo mugitzen dira, elikagai edo babeserako zokoren baten bila. Olagarro trebe hau bezala, harrapari aditua bera, zoko edo arrakala bakoitza arakatzen du, beti adi, harrapakinak zelatatuz.

Espezie ezberdinetako kontaezineko arrain kopuruak igeri egiten du, alga fotofilo eta kalkareoz eta briozoo kolonia, belaki, anemona, aszidia, poliketo eta madreporarioak bezalako organismoz estalitako substratu harkaiztsuaren gainean. Gainazal bentonikoan esekiduran dauden izakiez elikatzen diren organismoak gailentzen dira. Zuhaitz itxura daukate eta murgildutako paisaia zoragarri honetako biozenosia aberasten dute.

Creus lurmuturreko itsas zolan, bere urik sakonenetan, betirako atsedean hartzen dute historiaren aztarnak. Antzinako itsasgizonek beraien bidea galdu zuten leku haietan, gaur paradisu urperatuak aurki ditzakete itsaspekariek.

Lehenago mediterranean itsasoko urak zeharkatu zituzten hondakin mortuek ilunantza maite duten espezie ezberdinei ematen diete ostatu, eta organismo bentoniko ugari kolonizatu dituzte.

Paramuricea clavata gorgoniak garapen ikusgarria aurkezten du hemen, kutsadura eza eta urak etengabe berritzen dituen hidrodinamismo gogor baten adierazle.

Komunitate honek erakusten duen zuhaitz itxura hamarnaka urtetan polipo txiki ugari egindako ekintzaren ondorio da. Beraien kolonietan erroturik, garro bidez harrapatzen dute esekiduran dagoen elikagaia. Horrela, ukitu gorritz, urpeko paisaia zoragarriak eratzen dituzte, Costa Bravako parke natural honetan.